

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, INBERTSIO PUBLIKOARI FINANTZA LAGUNTZA EMATEKO ESPARRU PLANARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta, Inbertsio Publikoari Finantza Laguntza Emateko Esparru Planaren (Plana) gaineko fiskalizazio txostena egiteko eskatu zion, ekonomia-finantza jarduera, legezkotasuna eta egotzitako helburuak bete izana barne hartuko zituena. Txostena aho batez onetsi dute.

2003tik 2007rako Plana Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2002ko uztailaren 22an onetsi zuen eta Euskadiren sustapen eta garapen ekonomikorako garrantzizko diren inbertsio publikoko proiektuak finantzatzera emana dago.

Jarduerak bide azpiegitura, obra hidrauliko eta lur ureztatuen esparruetan biltzen dira eta banaketari dagokionez, lurralde oreka artatu behar dute. Obrak honako hauek exekutatu dituzte: Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Busturialdeako Uren Partzuergoak, Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak, AMVISAK, VIASAK eta Arabako Lanak sozietateak.

Guztira egindako ekarpenak 620 milioi eurokoak izan dira eta horietatik 442,5 milioi euro Eusko Jaurlaritzarenak dira eta 177,5 milioi euro Aldundienak; azken kasu honetan 2002ko ekitaldirako koefiziente horizontalei dagozkien ekarpen ehunekoak ezarri dira.

Azterlana gauzatu ondoren, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak ondorio hauek atera ditu:

- Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien Plana Garatzeko eta Aplikatzeko Akordioak, 2003ko otsailean sinatutakoak, zein proiektu finantzatuko ziren finkatu zuen, baina ez zuen adierazi zer irizpide erabiliko zituzten inbertsio

publikoak garrantzitsutzat hartzeko. Planean sartutako proiektuetan ondoren egin diren aldaketak kontuan izanda, ezin da irizpide objektiboetan oinarritutako ondorio bat eman funtsak proiektu garrantzitsuetan behar bezala banatu izanari buruz.

- Jarduera horien helburua Euskadiko ekonomia sustatu eta garatzea bada, zenbait irizpide objektibo zehaztu behar ziren inbertsioak estrategikotzat hartzeko; finantzaketa, dauden azpiegituren defizitaren arabera edo jardueren espezifikotasunarekin eta lortu nahi diren azken helburuekin bat datozen beste kontsiderazio batzuen arabera egin beharko zen.
- Planak finantzatutako obren kontratazioan hainbat salbuespen azaleratu dira:
  - o obraren kostua % 30, % 58 eta % 84 areagotzea ekarri duten hasierako aurrekontuaren gaineko aldaketak, arautegiari jarraiki izapidetu baziren ere, osotasunean zenbatekoaren kopuruak APKLTBan jasotako lehiaketa printzipioak urratzen ditu-eta; izan ere, desitxuratu egiten baita bai kontratuaren xedea, bai kontratuaren bolumen ekonomikoa ere, igoaldia arrazoi berri edo aurreikusteko ezinezko kausen ondorio izan dela justifikatu gabe.
  - o Balorazio irizpideak ezartzean gorabeherak, norbanakoarekin lotutako irizpideak erabiltzean (kaudimena, eskarmentua...) lehiatzaileen onarpen atalean erabili behar ziratekeenak, edo alde zurretik argitaratu gabeko azpi-irizpideak erabili izateagatik.
  - o pleguetan ezarritako eskaintza ekonomikoa baloratzeko formula objektiboa den arren, pleguan bertan aurreikusitako prezio faktorearen ponderazioa murrizten du.
- Planaren azken exekuzioari buruzko txostena, Kupoaren eta Finantza Ekarpeneren Zuzendaritzak mamitutakoa, ez du ez artezkaritza-kontseiluak, ez Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak onetsi.

Berebat, txostenak Planaren exekuzio eta kudeaketari buruzko beste ondorio partzial batzuk barne hartzen ditu.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia  
Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas